

Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Serengetiko migrazioa arriskuan

URTERO EHUNKA MILA gnouk, zebrak eta gazelak Tanzaniako Serengeti parketik Kenyako Masai Mara-ra migratzen dute. Migrazio hori ikusteko milaka turista hurbiltzen dira ingurura, eta horrek eragin handia izaten du bertako ekonomian.

Berriki, Tanzaniako lehen-dakari Jakaya Kikwete-k ipar-ekialdean dagoen Arusha hiria eta Victoria lakuaren ertzeko Mudoma hiria autobide batez

elkartu nahi dituela adierazi du. 480 kilometroko autobideak ez luke aparteko aipamenik mereziko, bere baitan arestian aipatu migrazio-bidearen zati bat hartuko ez balu; 50 kilometro inguru hartuko dizkio autobideak migrazio-bideari, eta horrek hautsak harrotu ditu kon-terbazionistengan eta turismo-etxeetan.

1.300.000 animaliak egiten dute migrazio erraldoia, eta uste da autobidea eginez gero 200.000 ingurura murriztuko litzatekeela kopuru hori; turismoa ere antzeko proportzioan jaitsiko litzateke.

Zer egin? Tanzaniako lehendakariari otu zaiona zera da: migrazio bideak hartzen dituen autobidearen 50 kilometroak asfaltatu gabe uztea. Eztabaida zabalik dago!



SRT84

Ozono geruzaren eboluzioa behatzeko web orria

Joan den mendeko 80ko hamarkadan ohartu ziren zientzialariak Antartikako ozono estratosferiko mailak, hainbat kutsatzaileraren eraginez, oso jaitsiera garrantzitsuak izaten zituela negutik udaberrira igarotzean. Ondoko helbidean jarraitu daiteke egunez egune-ko eboluzioa.

<http://ttiki.com/16013> (Ingeleseaz)

Euskal Herriko ur edangarri maila, egokia

Uda amaitzen ari dela-eta une egokia izan daiteke Euskal Herrian dugun ur edangarri kantitateari begirada egiteko. Ondoko bi helbideetan aukera dago horretarako; bata Ipar Euskal Herriari dagokio, eta bestea Hegoaldeari. Badirudi maila egokia dutela gure urtegi guztiek.

<http://ttiki.com/16014> (Gaztelaniaz)

<http://ttiki.com/16015> (Frantsesez)

Malariaren aurkako gerra luzea


Malaria transmititzeko gai diren eltxoak existitzen diren bitartean, jai dugu! Filosofia horrekin ari dira lanean ikerlariak eta Arizonako Unibertsitatean, AEBetan, ingeniari-za genetikoaren alorrean lortutakoaren berri ematen digute hurrengo loturan.

<http://ttiki.com/16016> (Gaztelaniaz)

Partxe bidezko txertoak

AEBETAKO EMORY UNIBERTSITATEKO eta Georgiako Institutu Teknologikoko ikerlari talde bat txertoak jartzeko sistema berriak probatzen ari da, eta badirudi emaitza onak lortu dituela. Hain zuzen ere, azalean disolbatzen diren mikro-orrazte osaturiko partxeak probatu dituzte arrakastaz. Partxeek 100 orratz dituzte, bakoitza 650 mikrometrokoa (mikrometroa metroaren milioirena da). Orratzak disolbatu egiten dira azalean eta horrela gorputzera igarotzen da txertoa.

Era horretan jarritako txertoak ez du espezialistarik behar, edonor izan daiteke txerto-jartzailea. Beraz, pandemia kasuetan abantaila nabarmenak izan ditzake orratz hipodermikoz emandako txertoekin alderatuta. Baina abantaila terapeutikoak ere baditu, gorputzean geratzen den memoriak askoz gehiago irausten baitu txerto tradizionalekin baino.



WWW.GATECH.EDU

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16